

IRAILAREN 27TIK URRIAREN 3RA IZANGO DA MIARRITZEKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA

Film latinoamerikarraren joera berriak ikusgai La Citan

■ Bederatzi film luze eta hamar labur lehiatuko dira Miarritzeko Zinemaldiko sail ofizialean

■ Aurten lehen aldiz zuzendari batzuen opera primak izango dira sail ofizialean


■ Zuzendari gazteen lanak eta zinema egiteko modu berriak azpimarratu dituzte antolatzaileek

Amagoia Mujika / Donostia

IRAILAREN 27AN hasi eta urriaren 3ra bitartean izango da Miarritzeko La Cita Nazioarteko zinemaldia. Egun horietan lehiatuko dira bederatzi film luze eta hamar labur sail ofizialean, Gare du Midin. *Golpe de estadio* Sergio Cabrera zuzendariaren film polemikoak emango dio hasiera zinemaldiari. Pelikula horrek Kolonbian erreakzio ugari sortu ditu, eta alde guztietatik heriotza mehatxuak jaso, atzo zinemaldiko aurkezpenaren antolatzaileek adierazitakoaren arabera: «Gobernutik, gerrilarien alde, eta droga saltzaileengatik jaso ditu heriotza mehatxuak». Komunikabideek Kolonbiako egoera tratatzen duten modua da filmaren ardatza.

Bestalde, aurten berrikuntzarik badu zinemaldiak. Lehen filmen aurkezpenarekin lehiatuko diren zuzendariak baitaude. Gustavo Corrado argentinarraren *El armario* eta Pedro Bial barsildarraren *Outras estórias* filmak dira opera primak.

Urrezko Eguzkia lortzeko lehiatuko diren gainontzeko filmak hauek dira: Juan Carlos Rulfo mexikarraren *Del olvido, al no me acuerdo*, Andres Wood txiletarraren *El desquite*, Elia Scheneiderren venezuelarraren *Huelepega*,



GARI GARAIALDE

Jean Cazenave, eta Xavier d'Arthuys, atzo prentsaurrekoan.

Luis Ospina kolonbiarraren *Soplo de vida*, Eduardo Caccagno argentinarraren *Yepeto* eta Fernando Perez kubatarren *La vida es silvar* filmak. Laburretan aipagarriak dira, besteak beste, *La botella* Liliana Paolinelli argentina-

rraren lana, Paula Markovitchen *Periférico* edo Isabel Diegues *Vila Isabel* filma.

Europar film horien ezagutza handituz

La Citako presidente Jean

Cazenavek latinoamerikar filmei buruz berezitasun batzuk azpimarratu zituen atzo: «alde batetik gero eta eskola gehiago sortu dira, eta ondorioz, heziketa aberatsagoa dute zuzendari berriek. Horrez gain, gero eta banaketa hobe dago Europan, nahiz eta oraindik gehiago landu behar den gai hori. Azkenik, gidoi onak egiteko esfortzua eta produkzioa gehiago zaintzen da». Horren ondorioa filmetan kalitate gero eta hobe dela azpimarratu zuen.

Zuzendari gazteak nagusi direla ere adierazi zuen Cazenavek. Emakume zuzendarien ekarpena ere azpimarratu zuen, esanez, gero eta gehiago direla, eta horien lan bikainak latinoamerikar zinemagintza aberastu dutela.

Urrezko Eguzkiaz gain, emakumezko interpretazio onenari, gizonezko onenari, ikuslearen saria, eta film laburretan Canal + saria izango dira. Nazioarteko zinemaldi horri amaiera emango dio Alex Calvoren *Se buscan fulmontis* filmak.

Bestalde, adierazi zuten aurten ezinezkoa izan den arren, datorren urtean emandaldi batzuk euskaraz izango direla.

Film guztiak gazteleraz, frantsesez, eta portugesez itzuliko dira.

Euskal ikus-entzunezkoen elkarteak kudeatuko du Europako Media programa

■ Bulego bat zabaldu du Donostian, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntzaz

Jon Eskisabel / Donostia

EUSKO JAURLARITZAKO Kultura Sailak eta IBAIA Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak bulego bat zabaldu dute Donostian, Europako Batasuneko Media programa aurrera eramateko. Antena Media Euskal Herria izeneko bulegoa IBAIAk kudeatuko du, eta Veronica Sanchezek zuzenduko du. Orain arte Eusko Jaurlaritzak kudeatzen zuen Media programarekin lotutako guztia. Hemendik aurrera, profesionalen beharrei "erantzun zuzenagoa eta eraginkorra" emateko, IBAIA izango da Europako Batasunaren eta euskal ikus-entzunezko arloaren arteko zubia, Imanol Agote Kultura sailburuordeak atzo azaldu zuenez.

Bulegoak aholkularitza eta informazioa eskainiko die ikus-entzunezko profesionali, Media programara proiektuak aurkeztu eta finantzazioa lortu dezaten. Media programaren hiru ardatzetan sakonduko du bulegoak: lanbide heziketa, proiektuen garapena eta ikus-entzunezko lanen zabalpena Euskal Herrikan. "Helburu nagusia da euskal ikus-entzunezko arloa Europan lehiakorrago izateko laguntzak ematea", azaldu zuen Veronica Sanchezek.

1991n sortu zen Media programa, ikus-entzunezko merkatu europarra sortzeko. 1996tik eta 2000ra bitartean Media II programa ari da martxan, 51.000 milioi pezetako inbertsioarekin (2.000 milioi libera inguru). Media III programa 2001. urtean jarriko da abian.

Erabaki honekin, Kultura sailak eta IBAIAk "apostu garbia egin dute euskal ikus-entzunezkoen alorra Europan txertatuago egoteko", Agotek adierazi zuenez. Halaber, akordioak bi aldeetara "harremana eta lankidetzaren estuagoa bultzatu nahi du, ikus-entzunezko politika orokorrago bat garatzeko».

Astebetez zehar filmen artean kultur eskaintza anitz izango dira Miarritzeko jaialdian

■ BEREZIKI filmen emandaldia bada ere zinemaldiaren ardatza, kultur disziplina ezberdinak ere eskainiko dira urtero bezala.

Alde batetik proiektio bereziak eskainiko dira lehiatzen diren filmez gain. Horien artean daude Bernardo Bertolucciren *La es-*

trategia de la araña, edo Pablo Martin Traperoen *Mundo Grúa*. Mugimendu Tropikalistako zinemagile batzuen lanak ere erakutsiko dira. Bestalde, dokumentalek, eta iragarki latinoamerikarrek lekua izango dute.

Bi omendu izango

ditu La Citak aurten. Jorge uis Borges eta Miguel Angel Asturias. Horien inguruan film emandaldiak, eztabaidak eta erakusketak izango dira.

Eguneko jardueraz gain, gauean ere izango da egitekorik. Gau Latinoetan hainbat musikaririk kontzer-

tuak eskainiko dituzte. Besteak beste izango dira, Monica Passos brasildarra, Los Latinos kolonbiarrak, Turtleshell Band Beliceko kantariak, Barbara Luna argentinarrak, Escola de Samba Batucada Brasilgo inauterietako erritmoak eskainiz, eta azkenik,

salsa emanaldi bat. Horiez gain, musika klasikorako, dantzarako eta antzerki emandietarako tarteak izango dira.

Azkenik, zinemagintza eta egileei buruz arte lan erakusketak egongo dira ikusgai Miarritzeko zinemaldiak iraun bitartean.